

**2007ko MARTXOAREN 29an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
OSPATUTAKO EZ OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA**

2007ko martxoaren 29an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Jon Urkaregi Garmendia alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Jon Urkaregi Garmendia

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Karlos Irazu Muñoa

Bere ezin etorria adierazi du:

Iñigo Aginalde Lertxundi
Jon Tejeria Otermin

IDAZKARIA: M^a Eugenia Muñoa Irureta

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Udala eta Gipuzkoako Foru Alduniaren artean sinatu beharreko hitzarmena onartzea, hala badagokio, Telelaguntza Zerbitzuaren kudeaketa –lanen esleipena formalizatzeko.
2. Manuel Larramendi Kultur bazkuneari 2007 urteari dagokion ekarpena burutzea, hala badagokio.
3. Tolosaldea Garatzen S.A baltzuari burutu beharreko 2007 ekitaldiari dagokion 1go ekarpena onartzea, hala badagokio.
4. Tolosaldea Garatzen S.A baltzuak Paper Eskolako instalazioak berritzeko eginiko ekarpena finantziatzeko Larraulgo Udalak egin beharreko ordainketa onartzea, hala badagokio.
5. 2007 ekitaldirako Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko udal zergaren errolda onartzea, hala badagokio.
6. 2007 urterako langileen agutegiak onartzea.
7. Fakturak eta ordainketak.

...//...

LEHENGO PUNTOA

UDALA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNIAREN ARTEAN SINATU BEHARREKO HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, TELELAGUNTZA ZERBITZUAREN KUDEAKETA –LANEN ESLEIPENA FORMALIZATZEKO.

Ikusirik 2007ko otsailaren 6an EUDEL-k eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Politika Sozialeko Diputatuak Gipuzkoako Lurralde Historikoan Teleasistentzia zerbitzuen prestaketa arautu eta koordinatzeko Lankidetzeta Hitzarmen Orokorra sinatu zutela.

Ikusirik, nahiz eta teleasistentzia zerbitzua ematea udalen eskumena den, bere ezaugarri teknikoak direla eta gomendagarria dela Foru Aldundiak kudeatzea.

Gaia azterturik, bertaratuek

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Gipuzkoako Foru Aldundiari tasesistentzia zerbitzua kudeatzeko gomendioa egitea.

BIGARRENA.- Alkate-Lehendakari jauna ahalmentzea Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean adostutako hitzarmena sinatzeko.

HIRUGARRENA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea ahalmentzea aipatu hitzarmena garatzeko beharrezkoa den araudia onartu eta argitaratzeko.

BIGARREN PUNTOA

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNEARI 2007 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik 2007 ekitaldirako Manuel Larramendi Kultur Bazkunak aurkeztu duen “Beterri-Aiztondo gerora bidean” egitasmoaren aurrekontua, non Larraulgo Udalari dagokion ekarpena 2.295,00 eurotako den eta % 60-aren ordainketa eskatzen den.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- “Beterri-Aiztondo gerora bidean” 2007 ekitaldirako aurkezturiko aurrekontua onartzea 2.295,00 eurotako kopuruan eta % 60-aren ordainketa burutzea, hau da 1.377,00 euro.

BIGARRENA.- 2007ko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea.

HIRUGARREN PUNTUA

TOLOSALDEA GARATZEN S.A BALTZUARI BURUTU BEHARREKO 2007 EKITALDIARI DAGOKION 1GO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik Tolosaldea Garatzen, S.A baltzuak aurkezturiko idatzia non 2006ko abenduaren 18ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehaztutakoaren arabera Larraulgo Udalarari 2007 urterako dagokion ekarpean 4.175,00 eurotako dela adierazten den eta % 50-arean ordainketa eskatzen den.

Gaia aztertutik bertaratuek

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosaldea Garatzen, S.A baltzuari egin beharreko ekarpena onartzea, 4.175,00 eurotako kopuruan eta % 50-aren ordainketa burutzea, hau da, 2.087,50 euro.

BIGARRENA.- 2007ko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea.

LAUGARREN PUNTUA

TOLOSALDEA GARATZEN S.A BALTZUAK PAPER ESKOLAKO INSTALAZIOAK BERRITZEKO EGINIKO EKARPENA FINANTZIATZEKO LARraulGO UDALAK EGIN BEHARREKO ORDAINKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik Tolosaldea Garatzen, S.A baltzuak aurkezturiko idatzia zeinetan, 2007ko martxoaren 8ko Administrazio Kontseiluaren bileran 2006an Tolosaldea Garatzenek Paper Eskolako instalazioak berritzeke egindako ekarpenaren %50^a-a udalek finantziatuko dutela akordatu zela adierazten den.

Ikusirik kontzeptu horregatik Larraulgo Udalak egin beharreko ordainketa 1.031,55 eurokoa dela.

Gaia aztertu onodoren, bertaratuek

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosaldea Garatzen, S.A baltzuari 1.031,55 eurotako ordainketa burutzea.

BIGARRENA.- 2007ko aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea.

BOSTGARREN PUNTUA

2007 EKITALDIRAKO TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO UDAL ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Alkate jaunak 2007 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko ibilgailuen gaineko Udala Zergaren Erroldaren berri ematen du, zeinaren zenbateko osoa 10.768,95 eurotako den.

Bertaratuek, aipatu errolda fiskala aztertutik, ahobatez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- 2007 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagokion Udala errolda onartzea eta 11/1989 Legeak, Herri Ogasunei buruzkoak 14.1 artikuluan xedaturikoari jarraituz hilabeteko epean espedientea jendeaurrean ipini, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, edonork aztertu eta egoki dituen iradokizunak burutu ditzan.

BIGARRENA.- Aipaturiko zerga ordaintzeko borondatezko epea, onaturiko 2006 ekitaldirako Zerga Egutegiari jarraituz, 2007ko apirilaren 1etik maiatzaren 31ara bitartekoa izatea.

SEIGARREN PUNTUA

2007 URTERAKO LANGILEEN EGUTEGIAK ONARTZEA

Idazkari andreak Larraulgo udala langileen 2007 ekitaldirako egutegiak aurkeztu ditu.

Gaia aztertutik bertaratuek aho batez onestu dituzte.

ZAZPIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate jaunak ondoren adierazten diren fakturak eta ordainketak aurkezten ditu bere onespenerako:

- JOXEAN ALTUNA	164,78 €
- ARGITU	120,87 €
- KIROLZER	136,25 €
- GSM	1.138,03 €
- ZELAI, S.A	34,80 €
- FERRETERIA BARBE, S.L.	57,06 €
- IBERDROLA	54,02 €
- TELEFONICA	19,20 €
- TELEFONICA	16,06 €
- TELEFONICA	90,29 €
- TELEFONICA	29,07 €
- TELEFONICA	0,70 €
- EUSKALTEL	59,20 €
- REPSOLGAS	89,91 €
- VODAFONE	92,65 €
- DIONISIO ORMAZABAL	77,73 €
- GALPARSORO	214,70 €
- MRW	11,99 €
- BELARMENDI	36,54 €
- I.L. CERRAJERIA	226,20 €
- JON TEJERIA OTERMIN	144,00 €
- TALLERES BERRI LANTEGI	949,45 €
- GOIZ ARGI	458,00 €
- KOPIDIN, S.L.	1.849,28 €
- KOPIDIN, S.L.	290,00 €

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Aipaturiko fakturak, denera 6.360,78 **Euro**tako kopurua osatzen dutenak onartzea.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 22.30 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

Jon Urkaregi

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

M^a Eugenia Muñoa Irureta